


BANAKETA ETA KOMUNIZIO KANALAK

KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure negozioa ezagutarazteko, publizitateaz baliatuko gara batez ere. Horrez gain, sare sozialetan kontuak izango ditugu jende gehiagori heltzeko.

Publizitateari dagokionez, iragarkiak egingo ditugu. UBICAP enpresa promozionatuko dugu, interneten, telebistan eta irratian agertuko diren iragarkien bitartez.

Ekintza hauen helburua, txipa eta enpresa ezagutarazteaz gain, gure merkatu potentzialera bideratzea da. Modu honetan, maskotei, alzheimer duten pertsoneri eta hirugarren adineko pertsoneri zuzendutako iragarki bereziak egingo ditugu.



Maskotei zuzendutako produktuak promozionatzeko, iragarkiak maskoten aldizkarietan baita web orrietan ipiniko ditugu. Bestetik, pertsona adintsuei baita alzheimer duten pertsoneri zuzenduta daudenak, hirugarren adineko pertsonak irakurtzen dituzten aldizkarietan baita osasuneko aldizkarietan jarriko ditugu.

Sare sozialei dagokionez, kontu berriak irekiko dugu bezeroekin kontaktuan egoteko eta haienganako hurbiltasuna erakusteko. Gure merkatua kontuan hartuta, Facebook gure bezeroei gehien egokitzen den sare soziala da. Horrez gain, Instagram-eko kontua ere irekiko dugu, gure merkatuari mugak ez jartzeko. Haiek eguneratuta mantenduko ditugu gure berrikuntzen berri emateko.



Sare sozialetan jarraitzaileak irabazteko, bezeroek produktua jasotzen duten kutxan eta bilgarrietan gure kontuen izenak egongo dira.

Horrez gain, eskaria epe laburrean handitzen saiatzeko, **pizgarri material eta ekonomikoak** erabiliko ditugu. Alde batetik, loteak eta deskontuak eskainiko ditugu bezeroentzat errentagarriagoak izango direnak. Bestetik, gure sare sozialetan zozketak egingo ditugu gure enpresa zabaltzeko asmoz.

Bezeroek gurekin kontaktuan jarri ahal izateko, aipatutako sare sozialen bidez izan daiteke (Facebook eta Instagram), baita haientzat eskuragarri dagoen posta elektronikoen bidez.

ubicapsa@contactus.com



BANAKETA KANALAK

Denda fisikorik ez dugunez eta produktu guztiak gure webgunearen bidez online saltzen ditugunez, **paketeak eta mezuak garraiatzeko** konpainia kontratatuko dugu: **SEUR**. Horrela, erosketak hartzaillearengana arazorik gabe eta ahalik eta azkarren iritsiko dira.



 dpdgroup

Bestalde, **Kiwoko**rekin aipatutako aliantzan, adostuta dago gure produktua haien **saltokietan** izango dutela bezeroei gomendatzeko eta, horrela, bezero berriak lortzeko baita salmentak handitzeko ere.